BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

99. zk. 2026, maiatzak 28. Osteguna 1. orr.

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Barakaldoko Udala

Barakaldoko Udalean Gidari Ofiziala izateko lanpostua izendapen askez behin betiko betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak eta deialdia.

Barakaldoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko maiatzaren 15a egindako 338/16/2026-28 Akordioaren bidez, erabaki hau hartu du:

Lehenengoa: Onestea Barakaldoko Udalean gidari ofiziala izateko lanpostua izendapen askez behin betiko betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak eta deialdia, zeinak eranskin gisa gehitu baitira.

Bigarrena: Oinarrien eduki osoa argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-taula elektronikoan, eta laburpen xehea jartzea Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena: Ebazpen hau jakinaraztea langileen ordezkariei.

Barakaldon, 2026ko maiatzaren 19an.—Alkatea, Amaia del Campo Berasategui

eek: BAO-2026a099-(II-2804)

ERANSKINA

BARAKALDOKO UDALEAN HUTSIK DAGOEN GIDARI OFIZIALA IZATEKO LANPOSTU BAT IZENDAPEN ASKEKO SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea eranskinean zehazten diren lanpostuak izendapen askez betetzeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa arautzea da, eranskinean zehazten diren ezaugarriekin.

2. Deialdi honetan parte hartzeko eskatzen diren betekizunak

Deialdi honen xede den lanpostua eskuratu ahal izango dute honako betekizun hauek betetzen dituztenek:

1. Barakaldoko Udaleko karrerako funtzionarioa izatea, C2 taldean edo AP taldean, administrazio bereziko eskalan, eta lanpostuak betetzeko prozesu honetako lanpostuetarako eskatzen den titulazioa izatea (eskola-graduatuko titulua, LH1, eskola-ziurtagiria edo baliokidea).
2. Bete beharreko lanposturako lanpostuen zerrendan adierazitako betekizun guztiak betetzea.
3. Esleitutako zereginak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izatea, eta bete beharreko lanpostuari esleitutako eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo gabezia fisiko edo psikikorik ez izatea.

Deialdiko lanpostuan sartzeko eskatzen diren betekizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira. Betekizun horiek esleitutako lanpostuaz jabetu arte bete beharko dira, eta baita aurrerantzean ere.

3. Argitalpenak

Oinarri hauek onetsi ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, deialdiarekin batera. Halaber, udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

Prozesuaren deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Izendapenaren ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Eskaerak aurkeztea

4.1. Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4.2. Eskaera Barakaldoko Udalaren egoitza elektronikoko enpleguko atalaren bidez aurkeztuko da, helbide elektroniko horretan dagokion prozesuaren formularioa betez. Era berean, Barakaldoko Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu ahal izango da, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako edozein modutan.

Eskaerarekin batera, azterketak egiteko eskubidearen tasa arautzen duen zerga-ordenantza arautzailean jasotako hamabost euroko tasa ordaindu beharko da (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 249. zenbakia, 2025-12-31koa), edo tasa ordaintzetik salbuetsita dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu.

4.3. Deialdiko lanposturako izangai izan nahi dutenek «curriculum vitae» bat aurkeztu beharko dute idazkiarekin batera. Bertan, honako hauek jasoko dituzte:

a) Titulu akademikoak.

b) Barakaldoko Udala ez den beste administrazio publiko batzuetan betetako lanpostuak.

c) Prestakuntza osagarria, euskararen ezagutza-maila eta egoki iritzitako merezimendu guztien aurkezpena.

Eskabidearekin batera, eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira, salbu eta horiek Barakaldoko Udale-

eek: BAO-2026a099-(II-2804)

ko espediente pertsonalean dagoeneko jasota badaude. Halaber, egoki deritzen argitalpen, txosten eta dokumentu guztiak aurkeztu ahal izango dituzte.

5. Aplikatu beharreko arauak

Oinarri hauetan ezarri gabekoari dagokionez, honako hauetan xedatutakoa beteko da: apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena; urriaren 13ko 190/2004 Dekretua, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena; eta, modu osagarrian, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duena; eta indarrean dagoen eta aplikagarria den gainerako Funtzio Publikoko araudia.

6. Balorazio-batzordea edo organo teknikoa

Balorazio-batzordea kide hauek osatuko dute (edo horien ordezkoek), deialdia egin duen organoak izendatuta. Idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez bozkatzekoa:

— Batzordeburu bat.

— Idazkari bat.

— Lau batzordekide.

Batzorde horretako kideetako bat langileen ordezkariek proposatuta izendatuko da.

Balorazio-batzordearen eginkizunak izango dira:

a) Lanpostuaren monografiak eskatzen dituen gaitasunak egiaztatzen dituzten izangaien zerrenda egitea.

b) Alkateari gehienez bost pertsonako (lanpostuan aritzeko egokitasuna eta gaitasun profesionalak egiaztatzen dituztenak) zerrenda proposatzea.

c) Deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatzea eta, hala badagokio, araudian dauden hutsuneak integratzeko eta horiek aplikatzean agertzen diren kontraesanak gainditzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea.

d) Bete nahi den lanpostuaren monografiak eskatzen dituen gaitasunak baloratzea.

e) Prozesuan zehar aurkeztutako alegazioak edota erreklamazioak aztertzea eta ebaztea.

Izangairen batek oinarrietan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen baditu, deialdia ezin izango da bete gabe utzi.

7. Egokitasuna eta gaitasun profesionalak baloratzeko prozedura

Hautagaitzak baloratzeko, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak hartuko dira kontuan, bai eta lanbide-profila bete beharreko eginkizunetara egokitzeko irizpideak ere. Hautagaitzak egokiak diren ikusteko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

— Erantzukizun berezia duten lanpostuetako esperientzia profesionala.

— Bete nahi den lanpostuari dagozkion eginkizunetan izandako esperientzia profesionala.

— Titulazio egokiak, bete beharreko eginkizunekin zerikusia dutenak.

— Bete beharreko eginkizunekin zerikusia duen prestakuntza espezifikoa. Hori dagozkion administrazio-ziurtagirien bidez egiaztatuko da.

— Lanpostuari esleitutako eginkizunekin lotutako beste trebetasun edo ezagutza espezifiko batzuk.

eek: BAO-2026a099-(II-2804)

8. Deialdiaren ebazpena

Aurkeztutako hautagaitzak aztertu ondoren, organo teknikoak lanpostuaren monografiak eskatzen dituen gaitasunak egiaztatzen dituzten izangaien zerrenda egingo du, eta gehienez ere bost pertsonako (lanpostua betetzeko egokitasuna eta gaitasun profesionalak egiaztatzen dituztenak) zerrenda bat proposatuko dio alkateari.

Udalbatzako alkate-udalburuak, dagokion izendapen-ebazpena hartzeko, zeina behar bezala arrazoituta egongo baita, proposatutako izangaiei elkarrizketa pertsonalerako deia egin ahal izango die.

Izangaiak «curriculum vitae»-a azalduz hasiko da elkarrizketa pertsonala, gehienez ere hamar minutuz. Azalpena amaitutakoan, bere ibilbide profesionalarekin eta bete beharreko lanpostuan dituen itxaropenekin lotutako gaiak formulatu ahal izango dira.

Azalpeneko argitasuna, enpatia, erantzuteko gaitasuna, azalpeneko zehaztasuna eta zorroztasuna eta ahozko adierazpenerako gaitasuna baloratuko dira.

Elkarrizketak publikoak izango dira eta audioan grabatuko dira.

Grabazioaren hasieran, izangaiak bere burua identifikatu beharko du izenarekin eta nortasun agiri nazionalarekin.

Alkateak aholkularien esku-hartzea eskatu ahal izango du, izangaiak egokiak diren eta lanpostuan behar bezala jarduteko behar diren trebetasunetara egokitzen diren ikusteko.

Deialdia ezin izango da hutsik utzi, baldin eta parte hartzeko betekizunak eta oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten izangaiak aurkezten badira. Beraz, elkarrizketa ezin izango da baztertzailea izan, baina bai egokitasuna definituko duena.

9. Izaera pertsonaleko datuen babesa

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian xedatutakoaren arabera, izangaien datu pertsonalak Barakaldoko Udalak sartu eta tratatu ahal izango ditu, lanpostu hori betetzeko prozeduraren berezko eginkizunak betetzeko, eta hori izango da tratamenduaren helburu bakarra.

Udalbatzako langileek sekretupean eta isilpean gorde beharko dituzte beren esku dituzten datu pertsonalak.

10. Behin-behineko atxikipena, izendapen askeko lanpostua uzten bada

Izendapen askeko lanpostuan izendatutakoa kargutik kentzen bada, bere kidego edo eskalari dagokion beste lanpostu batera atxikiko da behin-behinean, eta lanpostu hori ez da bere gradu pertsonalekoa baino bi maila beheragokoa izango, harik eta behin betiko beste bat lortu arte. Lanpostu hori utzi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, udalean indarrean dauden karrera-sistemen eta lanpostuak betetzeko sistemen arabera.

11. Azken arauak

Interesdunek deialdiak, oinarriak eta horietatik eta Kalifikazio Epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintzak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

eek: BAO-2026a099-(II-2804)

Post. kod.	Zk. Zuzkidura	Deskribapena	Taldea	Eskala	Klasea	LM	BM	Tit.	LMO	BO	HE	Data	Bat. Ez bat.	Oharrak
Alkatetza eta Herritarren Partaidetza Arloa														
Zerbitzu orokorrak														
Udal-gidariak														
431051	2	GIDARI OFIZIALA	C2/AP	AB	F	N	IL	9	14	810	B1B1		N	Arduraldi osoa

eek: BAO-2026a099-(II-2804)